



## Legazpiko Agenda 21eko Foroaren Akta

2016ko urriaren 4an, 18:30etik 20:30era,  
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

**Gaia:** Latxartegi parkearen azpian lurpeko aparkalekua eta janarien supermerkatua eraikitzeko proposamena.

- Udal gobernuaren proposamenaren azalpena.
- Elkarrizketa eta debatea proposamenaren inguruan: aldeko eta aurkako arrazoibideak.



## 1. Aurkezpena

Legazpiko Agenda 21eko Foroak saio monografikoa egin du gaurko tailerrean. Horrela, udal gobernu taldeak Latxartegi parkean lurpeko aparkalekua eta hura finantzatzea ahalbidetuko duen supermerkatua eraikitzea proposatzen du eta proposamen hori da gaurko foroan aztertuko dena.

Latxartegi eremurako eta udal ekipamenduko partzeletarako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatzaren inguruan burutzen ari den herritarren parte-hartze prozesuaren barruan kokatzen da gaurko bilera. Prozesu horretan **Tokiko Agenda 21eko foroaren tailer bat sartzen da, bere egunean Foroari Legazpiko Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioak eman baitzitzaizkion.**

Gaurko tailerrean bi zait bereizi dira:



Tailerraren helburuak eta planteamendua:

### 1. Proposamenaren aurkezpena.

Koldobike Olabide Legazpiko alkateak eta Santi Peñalba plangintzaren aldaketa zehatza proposatzeko kontratatu den arkitektoak, proposamenaren gako nagusiak azaldu dituzte eta azaldu diren hainbat kontu argitu dituzte.

### 2. Hausnarketa eta eztabaida.

Segidan, parte hartu duten pertsonak euren iritzia eman dute proposamenaren inguruan, aldeko eta aurkako arrazoiak identifikatuz.

Ikus dezagun dena zehaztuta, puntuz puntu.

## 2. Parte hartu duten pertsonak

**18 pertsona** izan dira bileran parte hartu dutenak.





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Izen-deiturak:

### Legazpiko bizilagunak:

Mari Cruz Lizarazu – Montse Vallejo – Encarna Prieto – Javier Arrieta – Mari Jose Cantero – Arantza Arizmendi – Floren Gutierrez – Rafa Gomez (Buskabaso)– Lucia Areizaga – Pilar Makibar – Rosa Makibar.

### Udal arduradun politikoak eta teknikoak:

Koldobike Olabide (alkatea) – Eric Galvez (zinegotzia) - Javier Iraeta (zinegotzia) – Iñigo Imaz (zinegotzia) - Oscar Valbuena (zinegotzia) – Roberto Alonso (zinegotzia) - Fernando Agirre (udaltzaingoaren arduraduna) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen saileko teknikaria).

### Kanpoko laguntzaileak:

Santi Peñalba, Hiri-antolamenduko Plan orokorraren aldaketa zehatza eta proposamen teknikoa idazteko ardura duen arkitektoa - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

**Eskerrik asko etorri eta parte hartu duzuelako** eta Legazpirako estrategikoa den proposamenaren inguruan **debate eraikitzailea** sortu duzuelako. Ikusi ahal izan denez, proposamenak kontuan hartu beharreko aldagai asko ditu.

## 3. Edukiak: aurkezpena eta debatea

Segidan, bilera nola joan den jasoko dugu, taldeak egin duen ibilbidea azalduz:

- **Proposamenaren aurkezpena, Latxartegi parkean lurpeko aparkalekua eta janarien supermerkatua eraikitzeko.**


Lehenbizi, Koldobike Olabide alkateak gaurko tailerra araudiak ezartzen duenaren arabera garatzen ari den parte hartze prozesuan sartzen dela adierazi du; ondoren, gobernu taldeak proposamena egitean kontuan izan dituen beharren azterketa azaldu du eta lortu nahi diren helburuak adierazi ditu.

Hauek dira ideia nagusiak:

Udal gobernu taldearen **proposamenaren gakoak** eta proposamenari lotutako herritarren parte hartze prozesua.

- **Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerra:** herritarren parte hartze prozesuaren urrats bat da, Latxartegiri eta udal ekipamenduen partzelen eraikigarritasuna handitzeari buruz Hiri-antolamenduko plan orokorra aldetzeari lotua.
  - Udal ekipamenduen eraikigarritasuna handitzea, guztiok ikusten duten eta adostuta dagoen beharra da.
  - Latxartegin lurpeko aparkalekua eta janarien supermerkatua eraikitzeko gobernu taldeak egin duen proposamena gauzatzeko, ezinbestekoa da eragingo den eremurako Hiri-antolamenduko Plan Orokorra aldatzea.
  - Horrela, aldaketa horri lotuta dagoen eta araudiaren arabera egin beharreko herritarren parte hartze prozesuan sartzen da Foroaren bilera. Ondorengoa da prozesuaren eskema eta egutegia:

## Herritarren parte-hartze prozesua/Proceso de participación ciudadana







## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Udalsarea 21  
Barrutiaren Erakundearen Erakundeak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

- **Latxartegin aparkalekua eraikitzeko beharra arrazoitzeko datuak:**

### Beharren azterketa:

- 2007an onartutako Legazpiko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak Latxartegin lurpeko aparkalekua eraikitzea aurreikusten du.
- 2008an Udal Osoko bilkurak aho batez onartu zuen mugikortasun iraunkorreko Planean udalerriko kale desberdinetan aparkaleku gabezia antzeman zen; gabezi horri erantzun nahian, Latxartegin aparkalekua eraikitzeko proposamena sartu zen Planean.
- 2009an, Legazpiko Udalak Latxartegin lurpeko aparkalekua eta goialdeko urbanizazioa egiteko proiektua eskatu zen; horren kostua 2,5 milioi eurokoa izango zela kalkulatu zen. Proiektua ez da gauzatu inbertsio handikoa delako eta, ondorioz, Udala zorpetzea ekarriko zuelako.
- 2014-2016: erdigunean –Nafarroa kalea, Kale Nagusia, Santikutz,...– azkenaldiotan egin diren eguneratzeen ondorioz (oinezkoei zuzendutakoak eta mugikortasunekoak) aparkalekuak galdu dira. Eta galera horri erantzun nahian, aparkatzeko behin-behineko 152 plaza sortu dira -52 Juanastegi kalean eta 100 industrialdean langileentzako-; horiei, aurreko legealdian Zubialde eremuan sortutako 34 aparkaleku gehitu behar zaizkie.
- 2008-2016 epealdiko balantze konparatiboa egiten badugu, erdiguneko ibilgailuentzako eta gainazalean dauden aparkalekuen erabilgarritasunari dagokionez, honako datuak aurkitzen ditugu: 2016an aparkatzeko 379 leku daude 2008an dauden 962 ibilgailuentzako. Oharra: azterketa konparatibo horretan 2008ko ibilgailu-kopurua hartu da aintzat konparazio kontserbatzailea egiteko xedearekin, 2008tik hona ibilgailuen kopuruak ez duela gora egin aurreikusiz.
- Gainera, Latxartegin aparkaleku beharra sortzen duten ekipamendu asko daude: kultur etxea, osasun-zentroa, ikastola,... Eta lehentasunezko ardatza da, bai oinezkoentzako baita ibilgailuentzako ere.
- Azkenik, EAJ-PNV taldeak 2015eko otsailean egindako inkestan nabarmendu zen gaietako bat aparkalekuen falta izan zen eta aparkalekuak egokitzea eskatu zuten inkesta bete zutenek.

### Merkataritza arloko azterketa:

- Erdigunean eta Laubiden dauden establezimenduen banaketa aurkeztu da eta argi ikusten da Legazpiko merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu gehienak erdigunean pilatzen direla.

### Legazpiko alderdi politikoen iritzia:



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Udalsarea 21  
Barrutiaren erakundeak, herritarren artean



- **Aldaketa-proposamenaren giltzarriak, Latxartegin supermerkatua eraikitzeko:**

Lortu nahi diren helburuak:


1. 2 solairuko aparkalekua eraikitzeko finantziazioa lortzea, **Udalarentzako kostua zero izan dadin.**
2. Juanastegi kaleko bidegorria berreskuratzea.
3. Lur gaineko aparkalekuetan dauden ibilgailuak kentzea motorrik gabeko mugikortasuna errazteko eta Mugikortasun planean jasotako oinarrizko bide-zirkuitua eta oinezkoentzako eta bizikletarientzako ibilbideak finkatzeko.
4. Latxartegi parkearen gainazala birmoldatzea eta lurpean aparkalekuak eraikitzea, garaje-plazak barne.
5. Latxartegi aparkalekuan bizikletak uzteko aparkaleku estalia egokitzea.
6. Latxartegiko garaje pribatuetarako sarbidea Santikutz kalean jartzea; horrek osasun-zentroko eta kultur etxeko ingurunea oinezkoentzat egokitzea ahalbidetuko du.

Supermerkatuari dagokionez:

- Ez da merkataritza-zentro bat egitea planteatzen, erdigunea suspertzea ekarriko duen janarien supermerkatu bat baizik.
- Guztira 1.500 metro koadro izango dituen denda bakarra aurreikusten da (denda + biltegiak + aldagelak; adibide argia izan daiteke Urretxuko Eroski denda); azalera hori da, gehienez, indarrean dagoen Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak baimentzen duena.
- Supermerkatuak hirigunea merkataritza-eskaintza zabalago batekin indartuko duela ulertzen da.

Osoko Bilkurak onartuz gero, hori garatzeak honakoa eskatuko du:

Plano tekniko batean Santi Peñalba arkitektoak Koldobikek egin duen azalpena planoekin eta datu zehatzekin osatu du. Hona laburbilduta:



## Erabilerak:

- Gainazalean: espazio libreetako erabilera.
- Lurpean (2 solairu):
  1. Garajeak edo aparkalekuak: 2.500 m<sup>2</sup> (guztira)
  2. Janarien supermerkatuko erabilera: guztira 1.500 m<sup>2</sup> – 2008ko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak ezarritako gehienezko mugaren arabera. Hau da, gehienez, 1.000 metro koadroko salmenta-azalera.
    - Supermerkatuko aparkalekua eta parkinga: 2.500 m<sup>2</sup> (guztira).
    - Azalpen-oharra: 1. solairuan aparkalekua edo garajea proposatzen da eta 2. solairuan, supermerkatua eta aparkalekua.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### • Zalantzak argitzen

Azalpenaren ondoren, lehenbizi taldean sortu diren hainbat **zalantza tekniko argitu dira**. Honako hauek:

- **Aparkatzeko zenbat plaza sortuko lirateke?**  
Santi: orain arte marraztu denaren arabera –behin betiko proiektu batean alda daitekeena- solairu bakoitzean 75 plaza inguru izango lirateke; guztira, 150 plaza, gutxi gorabehera.
- **Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak udalerrian mugatu egiten du merkataritza erabilerarako gehienezko azalera? Eta mugatu egiten du enpresa berak izan dezakeen gehienezko azalera?**  
Santi: Hiri-antolamenduko Plan Orokorrak ez ditu mugarik jartzen bi kasu horietarako. Aldiz, 1.500 metro koadrotan mugatzen du merkataritza erabilerarako partzela.
- **Bere egunean, Latxartegi parkeko eraikinaren azpian garaje gehiago egin nahi izan zenean, harkaitz oso gogorra aurkitu zutela esaten da. Orain aztertu da gai hori?**  
Santi: Udalak enkargatuta 2009an egin zen exekuzio-proiektuan lurpeko aparkalekua ohiko neurriak hartuta egin daitekeela jasotzen da.
- **Zein denda mota planteatzen da aparkalekurako?**  
Koldobike: janarien supermerkatua; denda bakarra. Ez da merkataritza-gune bat planteatu.
- **Planteatu diren ezaugarriak izango dituen supermerkatuan zein pertsona-bezeroen mugimendua sortuko litzateke? Eta zenbat joango lirateke autoz?**  
Foroan kontsulta daitezkeen erreferentziazko datuak daudela aipatu da. Foroko parte hartzaile batek mota horretako denda batean egunero ibil daitezkeen pertsona-kopurua 400era irits daitekeela esan du; horietako 20-30 gutxi gorabehera, autoz joango lirateke.
- **Egin den proposamenak aparkalekua eta hari lotutako trafikoa Legazpiko erdigunean biltzea proposatzen duenez, aztertu al dira beste proposamenak, eskaintza beste gune batzuetan banatzeko?**  
Hauek dira planteatzen diren ideia eta proposamen batzuk:
  - Bikuña jauregiaren atzealdean altuera batean egongo litzatekeen aparkalekua eraikitzea –lurzoru hori partikularra dela zehaztu da-.
  - San Martin eta Arantzazu auzoetan aparkaleku gehiago sortzea.
  - Egun behin-behinekoak diren aparkalekuak finkatzea –paper-fabrikakoa adibidez-.



## Debatea aurkeztutako proposamenaren gainean

Segidan, parte hartzaileek proposamenaren gaineko iritziak partekatu dituzte, aldeko arrazoiak, kontrakoak eta sortzen dituen zalantzak zehaztuz.

**Dudas:** ¿IMPACTO SUPERMERCADO? MÁS GRAVE, impacta aún más

¿Cuántos por letra en supermercado? ¿y de estos cuántos lo hacen en coche?

LA motivación es doble: conciencia o por parte de Gasteen UN PROBLEMA DE MOBILIDAD

OPORTUNIDAD AHORA: mayo 2017 (1º fase)

caso: 4600 plazas (¿todas están ocupadas en LEGAZPI?)

¿cuántos plazas están en LEGAZPI? ¿cuántos plazas están en LEGAZPI? ¿cuántos plazas están en LEGAZPI?

estudio de movilidad hecho por equipo SANMI y des n.º don. LA clave está en que las empresas se previenen con cargo directo Ayuntamiento

Generación plaza de trabajo: SUPER

Plan movilidad [2008] recoge la necesidad de APARCAMIENTO en LEGAZPI y TAMBIÉN en Euzkadi

¿el supermercado genera cambios en los compras de alimentación?

El municipio de 2008 no es hoy. y puede que las necesidades se hayan modificado. ¿se necesitan más? ¿se necesitan más? ¿se necesitan más?

PLAZAS QUE SAKEN: 75 plazas / PLAZA

2006: FOSAS SAMURNO TELLEA [estudio] → "meter bomba relojería CASCO URBANO"

¿NECESE LA PENAL por 150 plazas hoy por hoy y de POR VIDA ESTA REGULACIÓN? ¿PAPELERA es PROVISIONAL?

¿PUNTO ¿limita el TOTAL DE SUPERFICIE comercial en LEGAZPI? NO NI POR EMPRESA...

¿MOBILIDAD SOSTENIBLE? // CONCENTRACIÓN APARCAMIENTOS EN CENTRO... ¿OTROS BARRIOS? Llega lo contrario SAN MARTIN / ARANZAZU

En su momento, se intentó hacer más en la CASA → BOCA DURA [costoso] (comunidad de al lado) con medios normales, se puede. PROYECTO 2009

Se necesitan aparcamientos → Entrada tráfico en el pueblo

¿PRELING en ALTURA? Ej: desde BILURIA hasta el monte → TXORREONGA

PRELING en ALTURA? Ej: desde BILURIA hasta el monte → TXORREONGA

3 de unidad plazas aparcamiento ??? HABITOS comodones

PRELING en centro: condiciona tráfico, más impacta. ¿si no hubiera supermercado, lo Alternativas?

No hay suelo público: no se ha comprado terrenos → todo en privado

Ej: barracos en fiestas

"bomba relojería"

FALTA ESTUDIO REAL aparcamiento (superficie / subterráneo) + GARAJES

ANÁLISIS PRELING RESTRICIÓN: otras fórmulas

El supermercado impacta más al tráfico: por JUANASTEGI y TXORREONGA

SANTIURTE: es donde más tráfico hay

¿ES NECESARIO? HAY OTRAS SOLUCIONES... no hay por qué dejar el COCHE en el CENTRO

¿CAREAMOS

Comercio alimentación se puede sentir afectado TRADICIONAL

IMPACTO EN ZONA URBANA

atracción de tráfico [mejor solución sin supermercado. SERÍA LA PENAL]

Es una contradicción con la política y acciones de AGENDA 21 "no me acuerdo"

EN POSITIVO

plaza uso público

"Caramelo": coste cero AYTO (requiere autofinanciación)

REORGANIZACIÓN zona (aunque 3 otras alternativas)

Se generan plazas aparcamiento

servicio cultural entre Alastola - y todo en invierno

IMPACTO en el comercio no del alimentación

¿Es para el que compramos el queso en LEGAZPI. MENOS COMPRAS FUERA → más en el centro → puede desplazarse más en coche.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### Positibotzat jotako alderdiak:

- **Udalarentzako kosturik izango ez duela.**  
Ezarri den finantziazio-baldintza "gozoki" bat da, horren truke udalerrriak erabilera publikoko aparkalekua eta parke berria jasoko dituelako.
- **Proposamenean zonaldea oinezkoentzako egokitzea planteatzen da – bestelako aukerak egon badaitezke ere-.**  
Eta horrela, ingurunean dauden beste ekipamenduetara –bereziki, osasun-zentrora– oinez iristeko aukera errazten da.
- **Aparkatzeko plazak sortzen dira.**  
Ingurune horretan antzeman den behar bati –2008ko mugikortasun planean eta Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean jasotakoa- erantzuten zaio. Halaber, kultur etxearen, ikastolaren, mendekotasun-maila baloratzen duen zerbitzuaren,... inguruan sortzen den aparkaleku-beharrari erantzuten zaio.  
Zehaztu behar den kontua bada ere, aparkaleku-plazak bi motatakoak izan daitezke: garajeak –marra artekoa eta ez garaje itxiak– eta txandakako plazak.
- **Supermerkatua jartzeko proposamena onuragarria izan daiteke herrian bertan erosketak egitea erabakitzen duten legazpiarrentzako.**  
Erdigunean eskaintza handitzeak erosketak udalerrian egitera bultzatzen ditzake herritarrak –ez baitute autoa hartu beharrik izango beste udalerrira edo merkataritza-gune batera joateko-.
- **Janarien supermerkatu bat irekitzeak eragin positibo zuzena izango du zonaldean dauden eta janari-dendak ez diren beste dendetan; gainera, lanpostuak sortuko dira.**  
Azken finean, janarien erosketak erdigunean egiteko erraztasunak ematean inguruko beste dendetan erosketak egitera bultzatzen da.  
Eta dagoeneko dauden janarien denda txikiagoek ere ez dute eragin negatiboa zertan izan; "haragia, arraina, fruta,... Denda espezializatuetan erosteko ohitura duenak bere horretan jarraituko du; aukerak handitzen dira, besterik ez."

## Proposamenaren aurkako **eragozpenak eta arrazoiak**

- **Benetan al dago aparkatzeko plazen beharra?**  
Edo ohitura kontu bat da eta edozertarako autoa erabili behar dugula uste dugu?  
2008an antzemandako behar batetik abiatu gara eta urte hartako auto-kopuruaren datuak erabili dira. Behar bada azkeneko urte hauetan aldatu egin da argazkia, baita mugikortasun iraunkorreko planaren garapenaren ondorioz ere.  
Ondo egongo litzateke datuak eguneratzea –egungo eta benetako auto-kopuruarena, gainazaleko eta lurpeko aparkaleku-kopuruarena eta garaje partikularrena- eta erabakia hartu aurretik azterketa zehatza egitea.  
Baita aparkatzea erraztuko duten beste formula batzuk aztertzea ere, adibidez txandakako aparkalekuak edo beste batzuk.
- **Puntu horretan aparkalekua izango duen supermerkatu bat planteatzea, erdigunean "erloju-bonba" bat sartzea da.**  
Supermerkatuak erdigunean trafikoa handitzea ekarriko du eta, beraz, eragina izango du dagoeneko trafiko handia duen ibilbide batean – Santikutz kalea- Juanastegi-Txorronea-.  
Egokiago izango litzateke aparkalekua bakarrik planteatzea, supermerkatu gabe; edo aparkaleku hori Legazpiko erdigunetik kanpo planteatzea.  
Proiektu honek agerian uzten du Legazpi duen gabezia bat: ez dagoela udal jabegoko lurzorurik erdigunean. Urte askotan ez dira gerora erabilera publikoa (aparkalekua adibidez) izan dezaketen partzelak erosi.
- **Merezi al du "betirako" izango den irtenbide baten aldeko apustu egitea 150 aparkaleku-plazengatik?**  
Ezin al dira erdigunea konprometituko ez duten beste aukera batzuk aztertu? Ezin da, adibidez, paper-fabrikako behin-behineko aparkalekurako behin betiko irtenbide bat bilatu?
- **Finantziazioa alde batera utzita, beharrezkoa al da puntu horretan supermerkatua eta aparkalekua planteatzea?**  
Erdigunean supermerkatu bat jartzeak erosketak herrian egitera bultzatuko duela esan da. Baina erosketak hemen egiteko justu erdigunean aparkatzea eskatuko ez duten irtenbide berritzaileagoak azter daitezke: erosketetarako orgak,.....
- **Proposamen hau Tokiko Agenda 21aren politikaren eta ekintzen aurka doa.**  
Eta justu mugikortasun iraunkorraren kontrakoa eta ohitura jasangarriak eta osasungarriak hartzearen aurkakoa da.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### • Laburtuz

Arrazoi guztien irakurketa globala egin ondoren, gogoeta bat partekatu dugu taldearekin: planteatu den proposamenak esku hartze korapilatsua suposatzen du, ikuspegi desberdinetatik aldeko edo kontrakoak izan daitezkeen alderdiekin.

Eta horixe da gaurko tailer honetatik daramagun mezu nagusia: **proposamena ikuspegi desberdinetatik eta ahalik eta faktore gehienak aintzat hartuta aztertu beharra, Legazpirako eta bere etorkizunerako erabaki egokiena hartu ahal izateko.**

## 4. Eta eskerrak ematen bukatzen dugu

Eskerrak Foroari, Legazpirekin eta iraunkortasunarekin konprometituta dagoelako eta berak osatzen duen topaleku eta eztabaida-lekua errespetatzen duelako.

Mila, mila esker!